

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

67/2019 Foru Agindua, urriaren 24koa, baimentzen duena Eva María Díaz Picazaren behin-behineko izendapena Laudioko Udaleko diruzain lanposturako

Laudioko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra duela, oportetean dagoen Oscar Fernández de la Roza diruzaina ordezeko.

Horregatik, proposatzen du Eva María Díaz Picaza udal horretako funtzionarioaren behin-behineko izendapena.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauari 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eva María Díaz Picaza Laudioko Udaleko behin-behineko diruzain izendatzea, eginkizun horietan jardun dezan titularra ez dagoen bitartean; alegia, 2019ko azaroaren 11tik 19ra bitartean, bi egunak barne.

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako aldi bakoitzeko ez du indarrik.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Laudioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2019ko urriaren 24a

Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Oreekaren zuzendaria
JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA